



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ETORKIZUNEN GARRAIO PUBLIKOA DEFINIDUTEKO AZTERKETA-BATZORDE BAT SORTZEA ONARTU DABE

- **Osoko bilkurak aho batez onartu dau Bizkaiko Garraioaren 2018-2028ko Plan Estrategikoaren eukia aztertzeke batzorde berezi bat sortzea.**
- **Bizkaiko Batzar Nagusiek Europako zenbait zuzentzura egokitu dabe zerga-araudia, merkataritza elektronikoaren salmenten BEZari jagokonez.**
- **Osoko bilkurak, aholkularitza-enpresen kartelaren kasua dala eta Aldundiak barruko ikerketa bat edegi daian EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaia aurkeztu dituen mozinoak baztertu ditu.**

(Gernikan, 2021eko garagarriaren 14an). Gernikan gaur egin dan ikasturte politikoko Bizkaiko Batzar Nagusien azkenengo osoko bilkurak, aho batez onartu dau, “Bizkaiko Garraioaren Plan Estrategikoa 2018-2028” izeneko lan-dokumentua aztertzeke azterketa-batzorde bat sortzea. Foru Aldundiko Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Departamentuak joan dan martiaren 29an aurkeztu eutsen Batzar Nagusietako taldeei.

Foru Gobernuak babesten daben talde biek –Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak– proponidu dabe batzorde hori sortzea, Batzar Nagusietako taldeek eta beste gizarte- eta enpresa-eragile batzuek plan horri “ekarpenak” egiteko aukera izan daian. Helburua garraio publikoaren ahalik eta eredu onena barru definidutea da, eta, horretarako, batzordeak osoko bilkurari errespen bat aurkeztu beharko deutso bere ondorioakaz, eratzen danetik sei hilebeteko epean.

Azterlanak lurraldeko garraio publikoaren egungo egoeraren diagnostikoa egiten dau, hiru ikuspegitik: ekonomikoa, teknikoa eta juridikoa. Bizkaiko Garraio Partzuergoak proponiduta, kanpoko aholkularitza enpresa batek egin dau txostena, eta garraio mota guztien gabeziak, gainjarreak edo bikoiztasunak aztertzen ditu, baina “ez dau Foru Gobernuaren erespidea islatzen”, bultzatzaileek azaldu dabenez.

Oposizioneko taldeek “atsegin handiz” jaso dabe lantalde horren sorrera, izan be, plana “beharrezkoa eta lehentasunezkoa da garraio publikoaren egungo egoerea kontuan hartuta”, esan dau Emilio Lobato Elkarrekin Bizkaia taldeko kideak, eta eragile sozialek azken dokumentua “aberasteko” “aukera ona” dala esan dau. EH Bilduk, plana “oso berandu” iritsi dala kritikau ostean, batzordeagaz bat egingo dau “txartel bakarra, bizikletea –planeko ahaztu handia–, genero-ikuspegia edo garraio publikoaren optimizazioa eta hobekuntzea” gaiakaz lotutako “ekarpenak” eginez, Raul Mendezek aurreratu dauenez.

MERKATARITZA ELEKTRONIKOAREN BEZ-A



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia-PPB taldeen aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz, foru araudia apirilaren 27ko 7/2021 Errege Lege Dekretura egokitzeko Foru Dekretu Arauemoilea onartu dabe. Errege Lege Dekretua, balio Erantsiaren ganeko Zergari (BEZ) buruzko hainbat betebeharren inguruan Europako zuzentarau batzuk (2017/2455 eta 2009/132) txertatzera etorren.

Batzordeak legegintza-proposamen bat aurkeztu eban 2016. urtearen amaieran, mugaz gaindiko merkataritza elektronikoen BEZa modernizetako eta sinplifiketako. Proposamen horren oinarriak honeek ziran: urrutiko salmenten Batasunaren araubidea erreformatea, telekomunikazio-, irratia- eta telebista-zerbitzuei eta bide elektronikoz emondakoei aplikatu beharreko leihatila bakarraren mekanismoa zabaltzea, eta Batasuneko eta Batasunetik kanpoko hornitzaileentzako tratua- eta tributazio-bardintasuna.”

ONARTU EZ DIRAN MOZINOAK

Beste alde batetik, osoko bilkurak oposizinoak aurkeztutako bost mozino baztertu ditu. Talde Berezia-PPBk hainbat neurri defendidu ditu mozino berean (erreforma fiskala, industria-eredua aldatzea, enpresak sortzeko arau-esparru barria eta peajeen politikea aldatzea), Bizkaia inbertsinorako eta jarduera ekonomikorako “erakargarriagoa” izan daiten. Hainbat errazoiengaitik, proposamenak ez dau Batzar Nagusien babesik jaso.

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaiak mozino bi ekarri ditu osoko bilkurara. Batean, talde moreak aholkularitza enpresen kartela moduko kasuak saihesteko neurriak hartzea defendidu dau, izan be, gai horrek zigor ekonomiko handiak eragin ditu Aldundiarentzat lan egin daben aholkularitza enpresetan. Hori dala eta, EH Bilduk bere mozino propioa aurkeztu dau.

Talde morearen ekimenean, besteak beste, honeek eskatzen jakozan Aldundiari: barruko ikerketa bat hastea, “probautako iruzurra” euki daben lizitazioetan aurkeztutako lanak erabilteari iztea, eta zehatutako enpresak auzitara eroatea. Talde Berezia-PPBk 2018ra arteko foru-kontratazioen “probautako 14 egitateen” errepassoa egin dau. Azken horreek Merkaduen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) ebazpenean adierazoten dira.

Beste alde batetik, EH Bilduren mozinoan be barruko ikerketa bat eskatzen zan, Bizkaiko foru sektoreko erakundeen balizko inplikazioa ezagutzeko eta zehatutako aholkularitza enpresakaz kontratu txikiak saihesteko. Koalitzino abertzaleak foru kontratazio publikoa aldatzeko proposamena egin dau, Aldundiko beharginak lizitazioez arduratzeko eta kontratazioak prozedura edegiaren bidez eta lan baldintza “duinak” bermatuko dituen klausula sozialakaz egiteko.

Ekimen biak baztertuta geratu dira, jeltzaleek eta sozialistek kontrako botoa emon dabelako. Talde horreek biek kritikau egin dabe funtzionario batzuek zehatutako enpresakaz adostasun-delitua egin izana adierazotea, CNMCren ebazpenetik “Aldundiaren aldetik



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ezelango anomaliarik ondorioztatzen ez danean”. Lehiaren “gaitzespenak” enpresei eta Administrazioari eragiten deutse.

Barruko ikerketa bat martxan jarteari jagokonez, talde biek “zuhurtzia” eskatu dabe, lehiak gaia ikertu dauen arren prozesua “ez dalako amaitu”. Estaduko Kontratazioaren Aholku Batzordea da orain zehatutako aholkularitza-enpresek etorkizuneko lehiaketa publikoetan parte hartzearen ganean ebatzi behar dauena. Eta kontratazio publikoaren gaur egungo mekanismoa defendidu dabe, prozedura edegia dalako Aldundian “gehien erabilten dana”.

URDAIBAICO GUGGENHEIM ETA HIDROGENOA

Modu berean, beste mozino baten bidez, Urdaibaiko Guggenheim museoa handitzeko etorkizuneko proiektua Bizkaikoa enpresa-erakunde publikoaren barruan integretea eta proiektuaren lan akademiko eta ikerketa ardatzen kudeaketea, “modu eksklusiboan”, EHUren esku egotea defendidu dau Elkarrekin Bizkaia. Ekimenean Busturialdea-Urdaibai eskualdeko udal “guztiek” proiektuaren erabagietan parte hartzea eskatzen da.

Foru Gobernua babesten daben taldeek, barriz, ekimen pribaduagazko “lankidetzaren bidearen” alde egin dabe, eta, kasu honetan, “ez dabe arazorik ikusten Guggenheim Fundazioagaz batera joateko”. Ez dabe posible ikusten Bizkaikoak erakundeak proiektua kudeatzea, erakunde hori “guztiz” Aldundiaren esku dagozan museoaz arduratzen dalako. Udalen parte-harteari jagokonez, “hori egiten ari dira eta egiten jarraituko da”, adierazo dau Jesus Lekerikabeaskoa bozeroale jeltzaleak.

Azkenik, EH Bilduk etorkizuneko energia-proiektu handien agendan dagon gaietako bat ekarri dau Batzar Nagusietara: hidrogenoa. Mozinoan, Aldundiari 6 hilebeteko epean bakarrik hidrogeno berdean oinarritutako Plan Estrategiko bat egiteko eskaria egitea eskatzen zan, eta eragile ekonomiko, sozial eta politikoakaz prozesu “parte-hartzaile” bat martxan jarteko, plan hori egiteko eta adosteko.

Foru Gobernua babesten daben taldeentzat plan hori daborduko existiduten da – Hidrogenoaren Euskal Estrategia–, eta gaur egun “112 erakunde publiko edo pribaduk” parte hartzen dabe bertan, “34 proiektugaz”, “1.300 milioi euroko” inbertsinoagaz eta “1.340 lanpostu zuzen” sortuz, Jesus Maria Ortiz sozialistak azaldu dauenez. Fase “mailakatu” bat egongo da, hidrogeno % 100 berdea lortzeko azken helburura iritsi arte.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBA LA CREACIÓN DE UNA COMISIÓN DE ESTUDIO PARA DEFINIR EL TRANSPORTE PÚBLICO DEL FUTURO

- El pleno aprueba por unanimidad la creación de una comisión especial para analizar el contenido del Plan Estratégico del Transporte de Bizkaia 2018-2028.
- La Cámara vizcaína adapta la normativa tributaria a varias directivas europeas en relación al IVA en las ventas del comercio electrónico.
- El pleno rechaza mociones de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia para que la Diputación abra una investigación interna por el caso del cártel de las consultoras.

(Gernika, a 14 de julio de 2021). El último pleno de las Juntas Generales de Bizkaia del curso político, celebrado hoy en Gernika, ha aprobado por unanimidad la creación de una comisión de estudio para analizar el documento de trabajo "Plan Estratégico del Transporte de Bizkaia 2018-2028", que fue presentado a los grupos junteros por el departamento foral de Transportes y Movilidad Sostenible de la Diputación el pasado 29 de marzo.

La creación de esta comisión ha sido planteada por los dos grupos que apoyan al Gobierno foral –Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos- con el propósito de que los grupos junteros puedan realizar “aportaciones” a dicho plan, junto con otros agentes sociales y empresariales. Se trata de redefinir el mejor modelo posible del transporte público para lo cual la comisión tendrá que elevar al pleno un dictamen con sus conclusiones en el plazo de seis meses desde su constitución.

El estudio aborda el diagnóstico de la situación actual del transporte público en el Territorio, desde tres perspectivas: económica, técnica y jurídica. Realizado por una consultora externa a petición del Consorcio de Transportes de Bizkaia, el documento analiza posibles carencias, solapamientos o duplicidades de los distintos modos de transporte, si bien “no refleja el criterio” del Gobierno foral, han apuntado sus impulsores.

Los grupos de la oposición han recibido “con mucho gusto” la creación de este grupo de trabajo, ya que el plan es “necesario y prioritario teniendo en cuenta el estado actual del transporte público”, ha señalado Emilio Lobato, de Elkarrekin Bizkaia, que ha apuntado que es “una buena oportunidad” para que agentes sociales “enriquezcan” el documento final. EH Bildu, después de apuntar que el plan llega “muy tarde”, se sumará a la comisión con “aportaciones” en relación al “billete único, la bicicleta –la gran olvidada del plan-, la perspectiva de género o la optimización y mejora del transporte público”, apostando por una gestión “pública” del mismo, ha avanzado Raúl Méndez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

IVA DEL COMERCIO ELECTRÓNICO

La Cámara vizcaína ha aprobado, con los votos a favor de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Elkarrekin Bizkaia y grupo Mixto-PPB, y la abstención de EH Bildu, el Decreto Foral Normativo para adaptar la normativa foral al Real Decreto-ley 7/2021, de 27 de abril, que venía a transponer varias directivas europeas (la 2017/2455 y la 2009/132) en lo referente a determinadas obligaciones respecto del Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) para las prestaciones de servicios y las ventas a distancia de bienes.

La Comisión europea presentó una propuesta legislativa a finales de 2016 encaminada a modernizar y simplificar el IVA del comercio electrónico transfronterizo, cuyos pilares se basaban, según el decreto aprobado, “en la reforma del régimen comunitario de ventas a distancia, la ampliación del mecanismo de ventanilla única aplicable a los servicios de telecomunicaciones, de radiodifusión y televisión y a los prestados por vía electrónica, así como la igualdad de trato y tributación para proveedores comunitarios y de fuera de la Unión.”

MOCIONES RECHAZADAS

Por otro lado, el pleno ha rechazado cinco mociones presentadas por la oposición. El grupo Mixto-PPB ha defendido diferentes medidas en la misma moción –una reforma fiscal, un cambio en el modelo industrial, un marco regulatorio nuevo para la creación de empresas y una modificación en la política de peajes- para hacer una Bizkaia “más atractiva” para la inversión y la actividad económica. Por diferentes motivos, la propuesta no ha recibido ningún apoyo parlamentario.

Por su parte, Elkarrekin Bizkaia venía a la sesión plenaria con dos mociones. En una, el grupo morado ha defendido la implantación de medidas para evitar casos como el del cártel de las consultoras, que ha provocado importantes sanciones económicas a empresas que han trabajado para la Diputación. Este asunto ha sido motivo para que EH Bildu presentara también su propia moción.

En la iniciativa del grupo morado se instaba a la Diputación, entre otras cosas, a iniciar una investigación interna, a que dejase de hacer uso de los trabajos entregados en licitaciones “probablemente fraudulentas”, y a demandar judicialmente a las empresas sancionadas. El grupo Mixto-PPB ha hecho un repaso de los “14 hechos probados” de la contratación foral hasta 2018 que han sido señalados por la resolución de la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia (CNMC).

Por su parte, en la moción de EH Bildu se pedía también una investigación interna para conocer la posible implicación de las entidades del sector foral de Bizkaia y evitar contratos menores con las consultoras sancionadas. La coalición abertzale ha sumado a su propuesta un cambio en la contratación pública foral para que sea el personal de la Diputación quien



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

se encargue de las licitaciones y para que las contrataciones se realicen por el procedimiento abierto y con cláusulas sociales que garanticen unas condiciones laborales “dignas”.

Ambas iniciativas han sido rechazadas por el voto contrario de jeltzales y socialistas que han criticado que se insinúe que algunos funcionarios hayan cometido un delito de connivencia con las empresas sancionadas cuando, de la resolución de la CNMC, “no se desprende ninguna anomalía por parte de la Diputación”. El “reproche” de Competencia señala a las empresas y “en ningún momento” a la Administración.

En cuanto a la apertura de una investigación interna, ambos grupos han pedido “prudencia”, ya que el asunto ha sido ya investigado por Competencia, aunque el proceso “no ha terminado”. La Junta Consultiva de Contratación del Estado es la que debe ahora resolver sobre la participación de las consultoras sancionadas en futuros concursos públicos. Y han defendido el actual mecanismo de la contratación pública, ya que el procedimiento abierto “es el más utilizado” en la Diputación.

GUGGENHEIM DE URDAIBAI E HIDRÓGENO

Asimismo, Elkarrekin Bizkaia ha defendido, a través de otra moción, que se promueva la integración del futuro proyecto de ampliación del museo Guggenheim de Urdaibai en el marco de la entidad pública empresarial Bizkaikoa, y que la gestión de los ejes de trabajo académico y de investigación del proyecto recaigan “en exclusividad” en la UPV-EHU. En la iniciativa se insta a que “todos” los ayuntamientos de la comarca de Busturialdea-Urdaibai participen en la toma de decisiones del proyecto.

Los grupos que apoyan al Gobierno foral apuestan, sin embargo, por “el camino de la cooperación” con la iniciativa privada y, en este caso, “no ven ningún problema en ir con la Fundación Guggenheim”. No ven posible que Bizkaikoa gestione el proyecto, ya que este ente se encarga de los museos de titularidad “exclusivamente” foral. En cuanto a la participación de los ayuntamientos “esto se está haciendo y se seguirá haciendo”, ha apuntado el portavoz jeltzale, Jesús Lekerikabeaskoa.

Por último, EH Bildu ha traído a la Cámara uno de los temas que está en la agenda de los grandes proyectos energéticos de futuro como es el hidrógeno. En su moción, pedían que se instara a la Diputación a elaborar, en el plazo de 6 meses, un Plan Estratégico basado exclusivamente en el hidrógeno verde, y a poner en marcha un proceso “participativo” con los agentes económicos, sociales y políticos, con el fin de elaborar y consensuar dicho plan.

Para los grupos que apoyan al Gobierno foral este plan ya existe –la Estrategia Vasca del Hidrógeno- y en él participan actualmente “112 entidades” públicas o privadas, con “34 proyectos”, una inversión de “1.300 millones de euros” y la posible generación de “1.340 empleos directos”, ha explicado el socialista Jesús María Ortiz. La estrategia vasca pasa por una fase “gradual” hasta llegar al objetivo final de conseguir un hidrógeno 100% verde.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA